


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gaur egun gizarteak hainbat behar ezberdin ditu, hala nola, lan egiteko beharra, etxebizitza edukitzeko beharra, aisia parte hartzeko aukera... Behar horiek beteta edukitzea oso garrantzitsua da gure gizartearentzako, hala ere pertsona askok handicap handia daukate behar horiek aurrera eramateko.

Nahiz eta behar horiek, aipatu bezala askotarikoak izan, aisia da gure bizitzan garrantzitsua den beharretako bat. Honekin harremanak, nahiak, gustuak, ekintzak... garatzen ditugu. Hala ere, behar hau asetzeko, pertsona guztiak ez dituzte erraztasun berdinak izaten adibidez, aniztasun funtzionala duten pertsonak. Lehen aipatu dugun bezala aniztasun funtzionala duten pertsonak gure gizartearen portzentaje handia betetzen dute. Aisia, aniztasun funtzionala duten pertsonentzako ere garrantzi handia dauka, hala nola, lagunekin geratzea, kiroldegietara joatea, operara joatea, zinera joatea... Hala ere beraien aniztasuna dela eta, askok ezin dituzte nahi dituzten gauzak egin, gure gizartea ez dagoelako beraien beharretara egokitua. Hori dela eta, kolektibo hauen beharrak asetzeko beharra ikusi dugu.

Gure herrialdean, Erreterian, aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak asetzeko arreta desberdinak daude, hala nola, lanbide munduan, gizarteratzeko orduan, asian parte hartzeko aukerak... Hala ere, behar horiek esparru guztietan ez daudela guztiz aseak uste dugu adibidez, Erretereriako zineman.



Erretereriako zinemak, beste herrietako zinemak bezala, aniztasun funtzionala duten pertsonak ez dituzte kontuan hartzen. Adibidez gupil aulkian dauden pertsonak ezin dituzte zinemako mostradoreetan zineko sarrerak eskatu oso altuak daudelako, zinemako saletan egokitu zaien tokiak salaren behealdean dira...

Hau dela eta, gure enpresa-proiektua Errenteriako zinemara dihoazten aniztasun funtzionaleko (gurpil-aulkian daudenak) pertsonentzako zuzenduta dago. Aipatutako arrazoiak direla eta, pertsona hauek zinemetatik baztertuak daude eta beraien beharrei ez zaie erantzuten. Horregatik gure proiektu honekin lortu nahi duguna da gure bezeroak ere zinemetan integraturik egotea.

Beraz gure **xede- publikoa zinera dihoazten eta aniztasun funtzionala duten pertsonak** dira.